

- **25 urte hauetan zenbateraino bete dute EEK¹ eta bere jarduerak beren sorreraren xedea?**

Erabileraren esparrura bideratu dituzte EEK hein handi batean bere ahaleginak joandako 25 urteetan, lan ona egin da esparru honetan. Ezagutza ordea ezta ukitu ere eta motibazioari dagokionean berriz sintomak begi bistakoak dira:

. **Ez gara gure baitakoak:** EEok diskurtso politiko propiorik ez dugu bereganatzen asmatu eta beraz autozentratu gabe, besteen jardunaren orbitan dihardugu. Esate baterako, euskaldunari euskaraz bizitzeak beharrean, abertzale izateak ematen dio harrotasuna oraindik ere gaur egun, baita EEetako kideoi ere. Euskaraz bizitea ez dago gure harrotasunaren erdigunean.

. **Autoestima lurretik daukagu:** Ez dugu gure ahalmenean sinesten eta ondorioz, ez dugu begirada berariazko bat geureganatu oraindik. Geure buruaren pertzepzio desitxuratua dugu, *nazio eraikuntza* delakoak itsutzen gaituen artean, herri handiago baten baitan eratu gabeko herri bat izaten jarraitzen dugu.

. **Bigarren mailako herritarrak** izaten jarraitzen dugu euskaldunok geure herrian XXI. mende hasiera honetan; hiztun euskaldunak ukazioa bizi dugu, ez gara inon ageri, oraindik ez dugu ahots propiorik eratu eta saiatu garenean, isilaraziak izan gara; denek baliatzen gaituzte, baina inork ez gaitu babesten, inork ez du euskaldunon interesen alde bete-betean apustu egiten, lehentasunak beti beste gai batzuk dute: herriak, lurraldeak, hiritartasunak, etab. XXI. mende hasierako euskaldunok, XX. mende hasierako emakumeen egoera beretsua bizi dugu.

. **Hutsari kolpeka:** EEetan, orokorrean euskalgintzan bezala, *herria* eta *euskara* izeneko abstrakzioek bete dute erdigunea eta hiztuna, pertsona, baztertuta utzi dugu. EEetan ez gara baliabideak eskaintzeko gai izan gerturatu zaizkigun hiztunei bere hizkuntza esperientziaren gaineko liseriketa egin dezaten.

- **EEen mugimenduaren diskurtsoa, ardatz nagusiak datozen 25 urtetarako.**

Orain arteko erabilera esparruei utsiz, herriz herriko EEK motibazioa eta ezagutzaren esparruei heldu:

. Euskalduna, hiztuna, EEen jardueraren erdigunera ekarri eta bere hizkuntza esperientziaren liseriketa egiteko behar dituen baliabideak eskaini, hizkuntza portaerak aztertuz, hizkuntza biografiak osatuz, soziolinguistikaren eta hololinguistikaren nozioak landuz, begirada berri batez jantziz. Hiztuna askatu, autodeterminatu, hiztuna ahaldundu / jabetu².

. Euskalduna, hiztuna alegia, subjektu politiko-kultural gisa aitortu.

. Mugimendu politiko-kulturala: Jabetutako hiztunekin udalerrietako euskal herriak eratu eta ahotsa eman, pertsona eta gizarte eragileekin mintzakidetza landu. Beste era

¹ EE: euskaldunon elkarte / euskara elkarte.

² Empowerment

batera esanda, hizkuntza komunitatea artikulatu, euskaraz bizi garen jendartearen garapenerako interesen mesedetan jardun nahi dutenekin indar metaketa egin. EEK herriko euskaldunen elkargune eta ahots artikulatua izan behar du, gune politiko-kultural bat alegia.

. Topagunea: Euskaldunon nazio mailako ahotsa artikulatu eta hasi komunikazio lan apal baino eraginkor bat egiten, aurrez barneratutako diskurtso autozentratu baten bidetik. Euskaldunon biziberritze prozesuaren eta eskubideen defentsan diharduten pertsona eta erakundeekin koordinatuta jardun, aliantzak eratuz.

- **Datozen 25 urterako, EEen:**

- **Funtzioa, helburuak eta eginkizunak**

Mugimendu politiko-kultural bat osatu behar dute herriz herri EEK, eta bi mailatan jardun behar dute hasteko:

. Hitzunaren mailan: Norberaren hizkuntza portaeraren azterketaren bidetik, hizk. esperientziaren liseriketa egiteko baliabideak eskaini behar dituzte EEK, norbanakoaren deskolonizazio kulturala erraztu eta hitzunaren jabetzea (empowerment) bideratzeko.

. Komunitate mailan: herri / auzo / lantegietako euskal herriak eratuz, lekuan lekuko euskaldunen ahotsa artikulatzen asmatu behar dute EEK.

Nazio mailan: Topaguneak, orain arteko zerbitzuak eskaintzearekin batera, transmisioa eta hedapena landu beharko ditu aurrerantzean. Transmisioa bere baitako elkarteetako kideen formazioari dagokionean eta hedapena, begirada berariazko hau, gizartera ahots propioz hedatzeari dagokionean. Besteek egiten ez dutenez, iparrorratz lana beteko duen hitzunon ahots autozentratu eta eraginkor bat eratzea dagokio Topaguneari, hizkuntzen / kulturen inguruan eratutako gezur sozialei³ mozorroa kentzeko eta itomen honi amaiera emateko.

- **Zein gizarte helburu?**

Euskaldun jabetu eleanitzez osatutako gizartea: Euskaraz biziko diren eta hizkuntza gehiagotara zabalik egongo diren hitzunek osatutako gizartea dugu helburu EEK. Elkarbizitza bermatzeko aukera bakarra da, ez dago beste biderik.

- **Eredu baliagarriak:**

Ez gara zerotik abiatzen, lehenago beste batzuk zabalduko bideak oso baliagarri izango zaizkigu guri ere. Hona eredu batzuk:

- Mugimendu feminista, bera izan da aitzindaria eta eredu baliagarri ugari topatuko ditugu bertan: Jabetzea = Empowerment beraiei esker ikasi dugu esate baterako eta erabat baliagarria zaigu hizkuntzaren eremuan eginkizun dugun ibilbiderako.
- GLBT mugimendua da bestea, feminismoaren atzetik ikusi besterik ez dago egiten ari den ibilbidea. Irakurri Raúl López Romoren doktore tesia: [Del Gueto a la Calle](#) (Gakoa Arg. 2007)

³ Hitzun elebarraren egoera pribilegiatua, inguruko erderen portaera glotofagikoa, etab.